

**1207 – ¿Qué puede aportar la mediación lingüística a mis clases de euskera?
(Zer ekar diezaieke bitartekotza linguistikoa nire euskara-eskolei?)**

Adolfo Sánchez Cuadrado – Universidad de Granada

Ikastaro hau euskara irakasteko eta ebaluatzeko prozesuetan bitartekotza txertatzeko aukerak aztertu nahi dituzten euskara-irakasleei eta arduradun akademikoei zuzenduta dago. Ikastaroak, analisia egin eta praktikan jartzeko aukera emango du, eta, era berean, prozesu hori modu eraginkorrean, autonomoan eta irakaskuntza-testuingurura egokituta garatu ahal izateko oinarriak finkatu eta beharrezko tresnak eskaini nahi ditu.

Ikasgela (www.irakasbil.eus > NIRE IKASTAROAK)

Matrikula egin ostean, ataritik plataforma barrura sartu, dagozkizun **erabiltzaile-izena** eta **pasahitza** idatziz. Ikasgela "Nire ikastaroak" sailean aurkituko duzu.

Helburu orokorrak

Bitartekotzaren kontzeptua aztertzea bigarren hizkuntzak/atzerriko hizkuntzak irakasteko eta ikasteko esparruan, Europako Kontseiluak *EEMBaren Companion Volume* liburu osagarrian (2020) proposatutako aurrerapen berrien argitan, eta berrikuntza horien erabilerak aztertzea helduen euskara-eskoletako curriculumean eta ebaluazio-prozesuetan.

Helburu operatiboak

1. Bigarren hizkuntzak/atzerriko hizkuntzak irakasteko bitartekotzaren kontzeptua aztertzea, European proposatutako azken aurrerapen metodologikoak kontuan hartuta.
2. Bitartekotza-motak ezagutzea (linguistikoa, kognitiboa, harremanetakoa eta komunikatiboa), baita bere aplikazioa ere bigarren hizkuntzak/atzerriko hizkuntzak erabiltzeko eta ikasteko esparruan.

3. Bitartekotzaren ikaskuntza- eta ebaluazio-jarduerak aztertu, egokitu eta diseinatzea helduen euskararen ikaskuntza-irakaskuntzaren testuinguruan.

Edukiak

1. Bitartekotzaren kontzeptualizazioa

- Bitartekotza eta hizkuntzen irakaskuntza/ikaskuntza 2022an
- Bitartekotza eta komunikazio-gaitasuna

2. Hizkuntza-ikasgelarako bitartekotza jarduerak

- Bitartekotzaren jardura-motak eta modalitateak, eta bigarren mailako/atzerriko hizkuntzen erabiltzaileak prestatzeko duten ahalmen pedagogikoa.
- Bitartekotza-jarduerak sortzeko irizpideak.

3. Bitartekotzaren ebaluazioa

- Ebaluazio-jarduerak
- Bitartekotza-estrategiak

4. Offline bidezko lan praktikoa

5. Azken feedback-saioa

Metodologia

Parte-hartzaileen esku hartzean eta horiek egingo dituzten lanetan oinarrituko da ikastaroaren metodologia. Tutoreak gidatutako eginkizunen analisiarekin batera, parte-hartzaileek azterlanak egin eta teoria praktikan aplikatzeko jarduerak egingo dituzte saio sinkronoetan. Azkenik, offline bidezko lan praktikoa ere eskatuko zaie, eta tutoreak lan praktikoa horiei buruzko feedbacka emango du.

Ebaluazioa

Ebaluazioak bi osagai izango ditu: (1) Saio sinkronoen jarraipen ordenatua eta aktiboa (2) offline bidezko lana.

Jarduerak proposatutako helburuen lorpenari buruzko iritziaren arabera baloratuko dira. Honela emango dira balorazioak:

- A (Oso jardura ona, eskuratutako ezagutzei berrikuntzak eta originaltasuna eranstean dizkie.)
- B (Jardura ona, proposatutako helburuak kalitatez landu direla adierazten du.)
- C (Jardura zuzena.)
- D (Proposatutako helburuak gainditu ez izana adierazten du.)
- E (Proposatutako helburua erdiesten parte hartu ez izana adierazten du.)

Ikastaroa gainditzeko beharrezkoa da:

- proposatutako jarduera egitea eta horretan gutxienez C kalifikazioa lortzea
- asistentzia % 80koa baino handiagoa izatea

Bibliografia

Council of Europe. (2020). *Common European Framework of Reference for Languages: Learning, teaching, assessment – Companion volume*. Council of Europe Publishing.
<https://www.coe.int/en/web/education/-/common-european-framework-of-reference-for-languages-learning-teaching-assessment-companion-volume>